


# HADE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea



B2 maila

| Irakurmen-proba

| Idazmen-proba

Ariketa	Puntuazioa, gutxienez	Puntuazioa, gehienez	Denbora
Irakurmen-proba	10	20	45 min
Idazmen-proba	15	30	75 min
<b>Guztira</b>			<b>2 h</b>

2019ko deialdi irekia



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

HADE

B2 MAILA



### Egitekoa

Irakurri testua, eta galderei erantzun. Testuan esaten dena kontuan izan, eta aukeratu erantzun zuzena, adibidean egin den bezala. 0 galdera adibidea da.

Idatzi letra dagokion laukian.

Erantzun zuzen bakoitzeko **puntu 1** lortuko duzu. Erantzun okerrengeatik ez da punturik kenduko.

## — I. TESTUA —

### Reset

ASPALDI ikasi nuen ordenagailua izorratuz gero, irtenbidea ez dudala aurkituko haren tripa eta karpeta ezberdinetan arakatzen. Aspaldi ikasi nuen teknikari bati deituz gero, honek egingo duen lehen gauza ordenagailua itzali eta ondoren berriz piztea izango dela.

Hain erraz eta basikoa den irtenbidea eraginkorra izaten da gehienetan. Itzali eta piztu.

Honela, esan dezaket konputagailuak konpontzen dituzten teknikariei esker ikasi dudala bizitzan askotan “reset” botoia zapaldu beharra dagoela, bizitza berrabiarazi (=reinciar) behar dela askotan, aurrera egiten jarraitzeko, indar berriak aurkitzeko. Gure ingurua etengabe aldatzen doa, baita gu geu ere, inoiz ez gara berriz atzo izan ginena izango, eta, hala ere, egunero mundua leku berean balego bezala eta gu pertsona bera bagina bezala funtzionatzen dugu. Edo funtzionatu nahi dugu, baina zailtasunak aurkitzen ditugu, ameskeria baita dena beti berdina izango dela pentsatzea.

Ama larriki gaixotu zaio lagun bati, eta, haren ezinegona ikustean, pentsatu dut haren urduritasunaren erdia amagatik sentitzen duen kezka sorrarazi diola, baina beste erdia badela, hein handi batean, ez delako gai onartzeko bizitzaren etapa berri batean sartu dela. Laguna ernegatuta dago ezin duelako onartu bere ama, aurrerantzean, ez dela izango familiako kide guztien zaindaria (fisikoa edota espirituala), beti izan den bezala; ezin duelako onartu amak bera behar duela orain, ez bakarrik konpainia egiteko, orain arte izan den bezala, baizik eta bizirauteko. Ume txiki bat balitz bezala.

Reset. Laguna ikusten dudana hurrengoan reset botoia zapaltzeko gomendatuko diot. Itzali dezala une batez makina, minutu batzuetan berriz pizteko, bidean zerbait galtzeko arriskua onartuz.

Bizitza uneoro berrabiarazten baita, egunero aldatzen baita, eta batzuetan beharrezkoa baita berriz hastea, errealitate berri batean sartzen zarela onartzeko. Makina itzali eta berriz piztea.

Karmele Jaio  
Deia, 2018/12/14  
(Probarako moldatua)

## —I.TESTUA—

**Aukera ezazu erantzun egokia. Zure aukera erantzun-orrian idatzi (orrialde honetan ez).**

**Adb.: 0. Zer ikasi zuen aspaldi Karmelek ordenagailuen konponbideez?**

- a. Ez dela aditua informatikan.
- b. Ez duela merezi teknikari bati deitzea.
- c. **Konponbide eraginkorrena errazena izan ohi dela.**

**1. Zer adierazi du teknikariei buruz Karmele Jaiok?**

- a. Haiei esker ikasi duela ez dela gomendagarria konputagailuetan “reset” egitea.
- b. Ideia bat eman diotela benetako bizitzarako.
- c. Eguneroko bizipenei esker ikasi dutela konputagailuak berrabiarazten.

**2. Zer aipatu du Karmele Jaiok gure inguruaz?**

- a. Aldakorra dela.
- b. Geuk aldatzen dugula.
- c. Zaila dela aldatzen.

**3. Zergatik funtzionatzen dugu modu okerrean?**

- a. Amets gehiegi ditugulako.
- b. Denok berdin pentsatzen dugula uste dugulako.
- c. Kostata konturatzen garelako bizitzan aldaketak gertatzen direla.

**4. Zer pentsatzen du Karmele Jaiok lagun bati gertatutakoaz?**

- a. Jarrera lasaia hartu duela amaren gaixotasunaren aurrean.
- b. Haren urduritasunak ez duela zerikusirik amaren gaixotasunarekin.
- c. Bizitzaren etapa berriari egokitzea kostatzen ari zaiola.

**5. Zer aholku emango dio lagunari, bizitzari egokiago aurre egiteko?**

- a. Bizitzaren karga astunak bazterrean uzteko.
- b. Inguruan gertatzen ari zaizkion aldaketak kontuan hartuta jokatzeko.
- c. Errealitatea aldatu arren, berak betiko moduan jokatzeko.



### Egitekoa

Irakur ezazu artikulua, eta ondorengo orrian aurkitu testutik kendutako zatiak. Esaldi bat sobera dago. 0 adibidea da. Idatzi letra dagokion laukian.

*Erantzun zuzen bakoitzeko **puntu 1** lortuko duzu. Erantzun okerrengatik ez da punturik kenduko.*

## —2. TESTUA—

### Gehiegi garbitzearen paradoxa

Fisioterapeuta ofizioz, oro har osasunarekin lotutako gai guztiekiko agertzen du jakinmina Oier Gorosabel Larrañagak. Higienez hitz egiteko bildu gara oraingoan berarekin. Garbitasunaren testuinguru kultural eta historikoa azaltzeko, atzera egin du denboran, greziar eta erromatarren garaiko bainu-etxeetatik hasi eta .....(0).....: “Egungo garbitasun-eredua XIX. mendetik dator, Europan osasun-arloan eman zen iraultzatik, hain zuzen. Izurriteei aurre egiteko higie-ne publikoa bultzatu zen eta osasun-maila izugarri igo zen”. Iraultza horrek gaur normalak diren ur-korrontea, komunak, antiseptikoak eta zabor-bilketa lortu zituen, besteak beste. Hala ere, azken urteetan gero eta gehiago garbitzen gara eta ..... (1)....., hainbat adituren hitzetan. Hor-txe paradoxa.

Garbia eta zikina kontzeptuak erlatiboak dira, beraz: “.....(2)..... . Azala olio eta hondarrez eginiko nahastearekin igurtzen zuten eta ondoren strigilis izeneko igitai antzeko batekin kendu. Egun, zikintzat hartuko genuke hori”, dio Gorosabelek. 1850. urte inguruan, gaixotzean edo ezkondu aurretik soilik bainatzea zen ohitura. 1900 aldera urtean behin egiten zuten europarrek, “baita aberatsek ere”. Eta urrutira joan gabe, 1980ko hamarkadan .....(3)..... . Gaur, ordea, egunero behin edo gehiagotan egitea da ohikoena.

### Xaboa da kaltegarriena

“Xaboiak gure amonaren bizimodua irauli zuen. Euskal Herrian 1900. urte inguruan azaldu zen eta .....(4)..... . Diru pixka bat zuenak xaboa erosten zuen eta garbitoki modernoetara joaten zen arropa garbitzera”. Azalpen horri tiraka, Gorosabelek esan digu xaboa ez dugula neurrian erabiltzen. ....(5)..... . Ekar ditzake arazo nagusienak; azala babesik gabe utzi eta zenbait gaixotasuni ateak zabaltzea, esaterako. Izan ere, epidermisaren kanpoko geruza eta izerdia gehiegitan kentzeak bakterien ugalketa ekarriko du, .....(6)..... . Tenperatura-aldaketan aurrean gorputza egokitzea zailagoa izan daiteke, gainera.

Gakoa nork bere beharrak aztertu eta neurriak hartzea litzateke; maiztasuna eta erabiliko diren produktuak kontuan hartzea, alegia. Lanagatik edo dena delakoagatik ..... (7)..... . xaboi leunagoak balia ditzake, eta sarri dutxatzen ez den pertsonak xaboi puruak. Gorputzeko atal guztiak ez direla berdinak gogorarazi digu Gorosabelek. Besapeek, hankarteak edota oinek usain sendoagoa dute eta .....(8)..... . aurpegiaren edo besoen kasuan baino. Dena den, ez garela itsutu behar dio: “Gorputzaren usaina ez dago modan eta ezabatzen saiatzen gara. Inoiz garbitzen ez den pertsona bat zikina iruditu dakiguke, baina ez da horregatik gaixotuko”.

Ainhoa Mariezkurrena  
Argia, 2018/09/16  
(Probarako moldatuta)

—2.TESTUA—

**Aukera ezazu erantzun egokia. Zure aukera erantzun-orrian idatzi (orrialde honetan ez).**

*Adb.: 0.= e.- gaur egungo “hipergarbitasunaz” mintzatzera heltzeko*

- a. erromatarren garaian ez zen xaboirik erabiltzen
- b. egunero dutxatzeak ez, egunero xaboa erabiltzeak
- c. normalena astean behin dutxatzea zen
- d. horiek garbitzeko premia handiagoa da
- e. gaur egungo “hipergarbitasunaz” mintzatzera heltzeko**
- f. eta errazago sartuko dira gorputz barrura
- g. lixibaren ordezkoa izan zen
- h. horrek osasunari kalte egin diezaioke
- i. egunero dutxa hartu behar duenak
- j. izan ere, egun urik gabe garbitzeko produktuak ohikoak dira



Elkarrizketa baten sarrera irakurriko duzu. Ondoren, elkarrizketaren galderak irakurriko dituzu alde batetik, eta galderen erantzunak bestetik.

### Egitekoa

Elkarrizketaren galdera bakoitza dagokion erantzunarekin lotu behar duzu, adibidean egiten den bezala. Erantzun bat sobera dago. 0 adibidea da.

Idatzi letra dagokion laukian.

*Erantzun zuzen bakoitzeko **puntu 1** lortuko duzu. Erantzun okerreetatik ez da punturik kenduko.*

## —3. TESTUA—

### Eneko Sagardoy, Goyaren irabazlea:

#### Elkarrizketaren sarrera:

Goya sarietan 2018ko gizonezko aktore berri onentzat jo zutenetik bere ibilerei so izan ditu milaka begi, Altzoko handia berpiztu duen pertsona biluztu nahian-edo. Itzaletik argira bat-batean pasa den arren, aktore durangarrak neurrian hustu du barrena, berbak neurtuz eta arrakasta dagokion tokian jarriz. Urte luzeetan euskal aktoreek egindako lanaren fruitua belaunaldi berriak jasotzen ari direla sinetsita dago.

#### Elkarrizketaren galderak:

##### 0. *Pasatu al da Goya sarien lurrikara?*

1. Ez al zaitu pixka bat izutu hedabideetan izan duen oihartzunak?
2. Jende askorentzat ezezaguna zinen, baina ez zara hasi berria, ezta?
3. Nola lantzen dituzu pertsonaiak?
4. Zer-nolako paperak interesatzen zaizkizu interpretatzeko?
5. Durangoko Kurutziaga ikastolaren baitan sortutako KARRIKA antzerki-taldean eman zenituen lehen urratsak. Zer ikusi zenion bada antzerkiari, horrelako grinarekin horretan aritzeko?
6. Garrantzi handia dute, beraz, era horretako eskolek, antzerki-taldeek edota ekimenek euskal antzerkigintzarentzat?
7. Joaten al da jendea antzerkia ikustera?

Nerea Pikabea  
*Administrazioa Euskaraz. 2018 apirila*  
*(Probarako moldatua)*

### —3. TESTUA—

**Aukera ezazu erantzun egokia. Zure aukera erantzun-orrian idatzi (orrialde honetan ez).**

**Elkarrizketaren erantzunak:**

- a. Lehenengo eta behin, gidoia askotan irakurtzen dut; gidoilariekin eta zuzendariekin berba asko egiten dut. Gero, erreferentziak eskatzen dizkiet, bai estetikaren bai pertsonaiaren inguruan; eta apur bat janzten hasten naiz. Mundu propio bat sortzen dut, gero pertsonaiari ateratzen uzteko. Asko gustatzen zait arriskatzea eta ezaugarri propioak sortzea pertsonaia bakoitzari.
- b. Neure burua salbatzeko modu bat eta askatasun gune handi bat izan da antzerkia. Niri ez zitzaidan futboleko jokatzeko gustatzen, eta nolabaiteko babesleku bat aurkitu nuen sorkuntzan.
- c. Nik, orokorrean, antzoki bete gutxi ikusi ditut. Faltan botatzen dut, jende gaztearengan batik bat, antzerkiarekiko interesa. Aurreiritzi asko dago: aspergarria dela, denboragaltze bat dela, eta abar. Hogeita hamar edo berrogei urtetik gorakoak dira nagusiki antzokietara joaten direnak, eta, batez ere, emakumeak.
- d. Bai, Goya sariaren lurrikara itzaltzen ari da. Neurri batean, norberak ere erabakitzen du noiz jarri amaiera lurrikara horri.**
- e. Zalantzarik gabe. Ez bakarrik aktore izan nahi dutenei begira, baizik eta ikusle gisa hezi nahi ditugun horiei begira ere. Nik uste dut artea eta antzerkia, esate baterako, curriculum ofizial baten barruan egon beharko liriatekeela gaur egun, baina ez zaie behar besteko garrantzirik ematen.
- f. Pertsonaia batek erakartzen nau ikusten dudanean arriskuan jarriko dudala neure burua aktore moduan. Gustatzen zait eraldatzea, bai fisikoki bai izaerari dagokionez. Muturreko paperak egiten ere oso eroso sentitzen naiz.
- g. Bai. Aurretik ere horixe zen nire beldurretako bat. Pentsatzen dut iragankorra dela gertatzen ari zaidana. Ahalik eta gehien babesten dut neure burua, lagunekin eta familiarekin berba egin dut, eta konturatu orduko, berriro, zorionez, gustatzen zaidan horretan lanean arituko naiz.
- h. Urrian Madrilerako joango naiz *Obabakoak* antzeztera, eta baliteke Europan barna bira bat egitea Atxagaren lanarekin. Zorionez, datozen hilabeteetan ez dut lan faltarik izango.
- i. Badirudi orain hasi naizela, eta, egia esateko, heldu berri baten moduan sentitzen naiz, sei urte bakarrik baitaramatzat lanean. Hori bai, sei urteotan lan asko egin dut, eta hori pribilegio bat da. Baina *Handia* filmarekin eman dudana azken pauso hori erakusleiko bikaina izan da, batez ere neure lanbideko jendeak nire izena hilabete batzuetan buruan edukitzea ekarriko baitu.







**B2 maila | Idazmen-proba**



## Idazmena

### Egitekoa

Jarraian proposatzen zaizkizun bi gaietako **bat** aukeratu behar duzu, eta, ondoren, eskatzen zaizuna kontuan hartuz, idazmen-proba egin.

### Oharrak:

- Idazteko, boligrafoa erabili.
- Garbi idatzi, eta saiatu letra argia egiten.
- Orrialde marradunetan idatzi.
- Gogoratu gutxieneko hitz-kopurua bete behar duzula. **Gutxienez, 200 hitz idatzi behar dituzu.**
- Idazlana egiteko, **75 minutu dituzu.**

### Ebaluazio-irizpideak

B2 mailarako helburuak kontuan hartuta, idazlana zuzentzeko irizpideak:

#### **Egokitasuna**

Eskatutako gai, solaskide eta xedearen araberako lotura. Solaskideen harreman-motari eta xedeari dagokion tonua. Lexikoaren modalizazioa.

#### **Koherentzia**

Idea nagusien eta lagungarrien hari logikoa. Diskurtsoaren egitura, garapena eta hurrenkera logikoa. Ideien osotasuna.

#### **Kohesioa**

Esaldi, paragrafo eta testu osoa elkarlotzeko testu-antolatzaileen erabilera eraginkorra. Puntuazio-sistema. Kohesio-mekanismoen erabilera: anaforak, ordezkapenak, elipsiak.

#### **Aberastasuna**

Hizkuntz baliabideen ugaritasuna eta barietatea. Esaldi landuen eta horien baliokideen erabilera. Ordezkapen lexikalen erabilera.

#### **Zuzentasuna**

Gramatika-arauen erabilera zuzena: ortografia, deklinabidea, aditza, morfologia, sintaxia... Gaiari loturiko lexikoa.

Aukeratu proposatzen diren bi gai hauetatik **bat**:

## 1. gaia: Gero eta bizikleta-istripu gehiago errepideetan

### **Egoera:**

Txirrindulari-elkarte bateko ordezkaria zara. Azken boladan, txirrindularien istripuen kopuruak gora egin du. Elkartekideok kezkatuta zaudete. Hori dela eta, egoera egunkari batean salatu eta iritzia eman nahi duzue.

### **Egitekoa:**

Bidali gutuna elkartearen izenean egunkarira, irakurleei zuzenduta, egoera salatzeko eta iritzia emateko:

- Azaldu zuen kezka arrazoia.
- Adierazi zergatik egin duen gora istripu-kopuruak.
- Salatu, labur, errepidean ikusitako jokabide desegokiren bat.
- Adierazi zer neurri hartu beharko liratekeen, zuen iritziz, istripuak saihesteko.

## 2. gaia: Ikasle zaratatsuak alokairuzko etxebizitzetan

### **Egoera:**

Zuen eraikinean etxebizitza batzuk alokatzen dizkiete ikasturtero ikasleei. Azken urteetan ikasle zaratatsuak egokitu zaizkizue. Bizilagunen bileretan bizilagunok zuen kexa adierazi diezue jabeei, baina egoera ez da batere aldatu. Horiek horrela, udaletxean kexa idatziz aurkeztea erabaki duzue.

### **Egitekoa:**

Idatzi gutuna alkateari, bizilagunen izenean, azken urteetan bizi duzuen egoeraren berri emateko eta neurriak har ditzala eskatzeko:

- Adierazi zergatik erabaki duzuen gutuna idaztea.
- Azaldu, modu orokorrean, nolako bizilagunak bizi zareten eraikin horretan (adina, familia txikiak edo handiak diren, eta abar).
- Adierazi nolako egoera bizi duzuen alokairuen ondorioz, eta zerk haserretzen zaituzten gehien eta zergatik.
- Proposatu konponbideren bat, eta eskatu neurriren bat hartzeko.

**Zirriborroetarako  
(orrialde hau ez da zuzenduko)**

ZIRRIBORROETARAKO